

TIG SOLDADURAREN ARLOAN ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA

PROIEKTUAREN HELBURUAK:

Eibarko langabetuen enplegarritasuna sustatzea:

- Formakuntza: gaitasun pertsonalak.
- Formakuntza: TIG soldadura.
- Praktiak enpresan.
- Ikasleen % 30ak "Soldatzaile homologazio ziurtagiria" lortzeko aukera.
- Laneratze-prozesuan laguntza.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- 20 eta 55 urte bitartekoa izatea, eskaera egiten denean.
- Eibarren erroldatuta egotea.
- Langabezia-egoeran egon eta Lanbiden izena emanda egotea.
- Gaztelaniaren ahazko nahiz idatzizko ulermen-maila egokia izatea.
- Positiboki baloratuko da soldadura nahiz fabrikazio mekaniko arloan esperientzia profesionala edota ezagutza izatea.

ESKAERA EGITEKO EPEA:

2021eko otsailaren 8tik otsailaren 19ra (biak barne).

TRAMITATZEKO BIDEAK:

- **Presentziala:** PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa (Untzaga plaza 1, beheko solairua). Aldez aurretik **hitzordua** hartu behar da.
- **Elektronikoa:** Udalaren www.eibar.eus webgunearen bidez: Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.)

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- TIG soldaduraren arloan enplegua sustatzeko programan parte hartzeko eskaera behar bezala beteta. PEGORAn eta www.eibar.eus udal webgunean dago eskuragarri.
- Eskatzailearen NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- LANBIDEk egindako txostena, langabe gisa inskribatuta egondako aldiei buruzkoa.
- Curriculum vitae eguneratua.
- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua eta ordezkapena dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).

PROGRAMAREN GARAPENA

1. PARTE-HARTZAILEAK AUKERATZEA.
2. FORMAKUNTZA:
 - a. Konpetentzia espezifikoak; TIG soldadura arloan (40 ordu).
 - b. Garapen pertsonaleko konpetentziak (16 ordu).
3. PRAKTIKAK ENPRESAN (40 ordua).
4. SOLDATZAILE HOMOLOGAZIO ZIURTAGIRIA.
5. LANERATZE-PROZESUAN LAGUNTZA.